



Ebazpena, 2018ko uztailaren 4koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. honen bidez, Goi-mailako Arte-irakaskuntzak Diseinuan egiteko sarrera-probarako deia egiten da, 2018 urteko iraileko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko beharrezko argibideak ematen dira eta 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Goi-mailako arte-irakaskuntzen definizioa eta irakaskuntza horien ebaluazioa Espainiako goi-mailako hezkuntzaren antolamenduaren testuinguruan eta Europako esparruan egingo da.

Ikasketa horietan sartzeko, Batxilergoko titulua izan beharko da edo Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gaindituta izan beharko da; era berean, hezkuntza-administrazioek probak deitu, antolatu, garatu eta ebaluatu beharko dituzte, norik bere eskumen esparruan. Ikasketa horiek probetxuz egiteko heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratu beharko dituzte proba horiek, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 57.2 artikuluaaren arabera. Horren ondorioz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da Goi-mailako Arte-Irakaskuntzak Diseinuan ikasketetan sartzeko urtero egiten diren probak egiteko deia egitea, ez-ohiko deialdian, eta deialdia arautzea, baita irizpideak ezartzea ere Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleak onartzeko 2018/19 ikasturterako.

Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak

1. Ikasketa hauetara sartzeko probak egiten dira ikasketa hauek aprobetxamenduz egiteko behar diren heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratzeko.
2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek ematen dituen lurralde estataleko edozein zentrotan sartzeko, betiere zentro horietan plaza libreak baldin badaude.
3. Proba honek dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

Hirugarrena.- Proba egiteko, ikasleek bete beharreko betekizunak.

1. Goi-mailako Arte-irakaskuntzak Diseinuan sartzeko probak egin ditzakete:

-Batxilergoko titulua duten ikasleek.

-Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu dutenek.

2.- Halaber, 8/2013 Lege Organikoaren 69.5 artikuluan ezartzen diren adin betebeharrak betetzen dutenek, berariazko proba bat gainditu beharko dute. Proba honen lehenengo atala, Sailburuordeak 2016ko urtarrilaren 19ko Ebazpenean arautzen duen proba izango da (Heldutasun-proba). Proba honetan, Vitoria-Gasteizen maiatzaren 20an egingo dena, ikasleek Goi-mailako Arte-irakaskuntzak Diseinuan probetxuz egiteko ezagupenak dituztela adieraziko dute. Proba hau egitetik salbuespena egongo dira aurreko deialdietan heldutasun proba gainditu dutenek, edo Lanbide Heziketako goi mailako zikloetarako sarbide probako atal komuna gaindituta dutenek.

Laugarrena.- Proba espezifikoak egiteko salbuespenak

Maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuko 5.7 artikuluari jarraituz, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-mailako Teknikari titulua dutenek ez dute sarrera-proba egin beharko.

Bosgarrena.- 2018ko irailean proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastegia eta epeak.

1. Izena emateko epea:

Ez ohiko deialdia: 2018ko irailaren 3tik 5ra (biak barne).

2. Izena emateko tokia.

EASD I.D arte/ADGE zentruak finkatzen duena inskripzio datak hasi aurretik

3. Dokumentazioa nora eraman.

EASD I.D arte AGDE
Vitoria- Gasteiz. K/ Aguraingo Taldearen kalea z.g
Tlfno:945-123395; info@idarte.eus

4. 2016ko maiatzaren 16koa Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoa xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten ikasleek 28,02 euro ordainduko dute ADGEren web orrian jarriko den aplikazioaren bitartez. Ordainagirian, izena eta bi abizen adieraziko dituzte, eta " Goi-mailako Arte-irakaskuntzak Diseinuan egiteko Sarrera-proba " azalpena zehaztuko dute

5. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, eskabidea betetzeak adierazten du baimena ematen dela eskabidean jasotako datuak Hezkuntza, Saileko fitxategi informatizatuetan sartzeko. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak, Lege horretan aurreikusten direnak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan balia daitezke.

Seigarrena.- Proba egitea.

1. Proba egiteko eguna.

Ez ohiko deialdia 2018ko irailaren 14ean, arratsaldeko 16:00etan.

2. Proba egiteko tokia:

EASD I.D arte AGDE /Vitoria-Gasteiz/, Aguraingo Taldearen kalea z.g.

3. Proba euskaraz edo gazteleraz egin ahalko da. Ikasleek izena emateko eskabidean adieraziko dute zer hizkuntzatan egin nahi duten.

4. Proba egiteko, nortasun-agiri bat aurkeztuko dute ikasleek (NAN, pasaporte, egoitza-baimena...), eta beharrezko material guztia eramango dute

Zazpigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izan ditzaten. Eskabide-orrian, egokitzapenak idazteko atalean, azalpen osoa idaztea ezinezkoa bada, orri atxiki batean emango da egokitzapen horren azalpen osoa.

Zortzigarrena.- Sartzeko probaren edukia eta balorazioak

1.- Sarrera-proba honek lau ariketa izango ditu, eta aurreneko biak bi zatitan banatuko dira:

Lehenengo ariketa. Idatzizko ariketa (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)

A zatia: diseinuari edo/eta arteari buruzko idazki labur batzuk emango dira, hautagaiek haiei buruzko iruzkin laburrak egin ditzaten (puntu bat)

B zatia: ikusizko kultura, kultura-kontsumoa, hezkuntza edo/eta diseinuarekin zerikusia duen edo duten gai bat edo batzuk jarriko dira, hautagaiek 10 lerrotan iruzkindu eta argudiatu ditzaten (1,5 puntu)

Ebaluazio-irizpideak:

- Maila narratibo-deskribatzailea (% 40)
- Kontzeptualizatze, argudiatze eta laburtze gaitasuna (% 40)



- Idazmena (% 20)

Bigarren ariketa. Espazio-ikuskeraren eta -eraikuntzaren (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)

A zatia: test erako proba, espazio-eraikuntzari, garapenei, hedapenei, bolumetriari eta ikuspegiari buruzkoa (1,5 puntu)

B zatia: marrazketa teknikoko proba (puntu bat)

Ebaluazio-irizpideak:

- Espazio-ikuskeraren (% 40)
- Definizioaren ulermena eta eraikuntza formala (% 40)
- Aurkezpena, ordena, garbitasuna eta errotulazioa (% 20)

Hirugarren ariketa. Errepresentazioa (denbora: ordubete eta 15 min.; balioa: 2,5 puntu)

Objektu eta bolumen jakin batzuk emanda, hautagaiek konposizio espazial bat sortuko dute. Helburua da jatorrizko konposizioa ezagutzen ez duen norbait gai izatea errepresentaziotik abiatuta hura birsortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- Objektuen konposizioa, ordena, egitura eta kokapena (% 30)
- Espazio-ikuskeraren eta formaren ulermena (% 30)
- Aukeratutako errepresentazio deskribatzailearen koherentzia (% 20)
- Aurkezpena eta garbitasuna (% 20)

Laugarren ariketa. Erronka sortzaile-subjektiboa (denbora: ordubete eta 15 min.; balioa: 2,5 puntu)

Emandako material batetik abiatuta (testua, bideoa, musika), elementu batzuk eduki beharko dituen sormen-erronka bat proposatzen da. Elementu horiek ere eman egingo dira.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sormena, kontzeptualizatzeko gaitasuna, konposizio sintetiko eta koherenteen barruan sartuta dauden esanahiak sortzeko gaitasun sinbolikoa (% 40)
- Ikusizko informazioaren konposizioa, ordena eta hierarkia (% 40)
- Egikera eta akaberak (% 20)

Bederatzigarrena.- Sarrera-probaren kalifikazioa.

Kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta batetik hamarrerako eskala erabiliko da horretarako, bi hamartarrekin. Bost edo gehiagoko kalifikazioa beharko da ariketa gainditzeko.

Hamargarrena.- Sarrera-proba ebaluatzeneko epaimahaia.

1. Hezkuntza Berriztatzeneko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeneko epaimahaia, eta epaimahaiburua eta gutxienez lau epaimahaikide izango ditu. Epaimahaikideak goi-mailako irakaskuntzetako irakasleak izango dira eta esparruaren berriazko ezagutzak izango dituzte.
2. Epaimahaia idazkari bat izendatuko du epaimahaikideen artean, eta horrek ebaluazio-akta egingo du. Bertan, sarrera-probako ariketaren kalifikazioa jasoko da.

Hamaikagarrena.- Probaren emaitzak argitaratu ematea eta erreklamazioak egitea.

1. Behin-behineko kalifikazioak EASD I.D arte ADGE n argitaratuko dira 2018ko irailak 20an eguerdiko 13:00etan.
2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta 48 orduren buruan egin dezake ikasleak kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I.D arte ADGEko idazkaritzak emango duen eredu erabiliz edo info@idarte.eus era e-mail bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzean ebatziko da.
3. Behin betiko kalifikazioak argitaratu emango dira 2018ko irailaren 26an eguerdiko 13:00etan.
EASE I.D arte AGDE
4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatzeneko Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamabigarrena.- Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du EASD I.D arte AGDE n.

Hamahirugarrena.- Ikasleak onartzea.

1. Ikastetxe publikoak jarraian adierazitako ehunekoak erreserbatuko ditu ikasketak hauek egitera sartzeko bide bakoitzerako, dituen plazak aztertu ondoren:
 - a) Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako titulua edo baliokidea dutelako zuzenean sartzeko bide bakoitzerako tokien % 15 erreserbatuko dute.
 - b) Batxiler-tituluaren edo baliokideren baten bitartez sartzeko bide bakoitzerako proba gainditzen duten ikasleentzat tokien % 77 erreserbatuko dute.
 - c) Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasun maila duten ikasleentzat tokien % 5 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion sartzeko eskakizunak

betetzen badituzte. Horretarako, ezgaitasuna duten ikasleek zer ezgaitasun-maila aitortuta duten adierazten duen ziurtagiria erakutsi behar dute, eskumena duen organoak egina.

Eskaera erreserbatutako tokien kopurua baino handiagoa bada, ikasleen lehentasun-ordena egiteko zerrenda bakarra egingo da, berariazko sarrera-probako kalifikazioa edo, salbuetsita dagoela-eta zuzenean sartzen bada, aurkeztu den tituluaren batezbesteko nota kontuan hartuz.

d) Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako ete erremindu handiko kirolalriei buruzkoak, 9.4. artikuluan xedatzen duenarekin bat, horrelako kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat tokien % 3 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta berariazko proba gainditzen badute.

2.- c) eta d) ataletan zehazten diren erreserba-kupoetan bete gabeko tokiak b) ataleko erreserba-kupora gehituko dira. Halaber, b) atalean zehazten den erreserba-kupoan bete gabeko tokiak a) ataleko erreserba-kupora gehituko dira, eta alderantziz.

3. Honakoa izango da ikasleen lehentasun-ordena, sartzeko moduaren arabera:

a) Salbuetsita daudela-eta zuzenean sartzen diren ikasleak

Ikasle hauek Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren tituluaren, edo baliokidetzat jotzen den baten, batezbesteko notaren arabera ordenatuko dira

b) Berariazko probaren bidez sartzen diren ikasleak


Ikasle hauek Ebazpen honek deitzen duen berariazko sarrera-proban lortutako kalifikazioaren arabera ordenatuko dira.

Berariazko proban kalifikazio bera duten ikasleak proba hori egin ahal izateko alegatzen duten tituluaren edo probaren notaren arabera ordenatuko dira.

4. Berariazko proba Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten eskatzaileek beste eskaera guztien aurretiko lehentasuna izango dute.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 4ean

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA


Lucía Torrealday Berrueco